



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGPk kendu egingo ditu Areta, Moyua eta San Mamesko metro geltokietako argi-iturriak eta horien ordez LED teknologiadunak jarri

- **Horrela, metroan energia eraginkorragoa izateko planari eusten zaio. Orain arte, Abandoko eta UT 500 serieko 24 trenetako fluoreszenteak kendu dira.**

Bilbo, 2015eko otsailaren 6a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) 150.000 euro inbertituko ditu Metro Bilbaoren Areta, Moyua eta San Mamesko geltokietako argiak aldatzeko. Bizkaiko garraio publikoa koordinatzen duen erakundeak zenbateko horrekin – hasierako aurrekontua baino %23 gutxiago- adjudikatu du lurpeko hiru geltokietako argi-iturri guztiak kendu eta horien ordez LED teknologiadunak jartzeko lana. Izan ere, lan hau iaz metroan energia eraginkorragoa izateko hasi zuen planaren barruan sartzen da. Neurri honen helburu nagusia dirua aurrezte da. Aurreikuspenen arabera, hodi fluoreszente berriei esker %57 murriztuko da energiaren kontsumoa.

Enpresa adjudikaziodunak nasa, mezzanina eta sarbide guztietako argi-iturriak aldatzeko behar den material guztia eman eta jarriko du; Abandoko geltokian dagoeneko egin da hori guztia UT 500 unitateetan –24 tren zaharretan-, baina lehenbizi geltoki honetan eta horietako tren batean egin ziren ereduak probak argi-teknologia desberdinak erabilita. BGPk, beraz, bete egiten ditu adituek txosten teknikoetan jasotako gomendioak, saiakerak egin ostean txostenetan ondorioztatu baitzuten LED teknologiadun argiak beste aukerak baino hobeagoak zirela eta energiaren eraginkortasunari, mantentzeari eta argiaren kalitateari dagokienez emaitza onenak zituela.

Gaur egun, metroko geltoki gehienetako argiak ohiko fluoreszenteak dira; teknologia hori laurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera hasi zen ezartzen. Azken urteotan teknologia garatu da eta horri esker argi-iturri eraginkorragoak agertu dira. Ondorioz, BGPk erabaki du gaur egungo argiak pixkanaka aldatzen joango zela eta horien ordez LED teknologiadunak jarriko zituela, azken hau ekonomikoagoa delako bai kontsumoari bai mantentzeari dagokienez.

Zehazki, 2015. urte honetan 1.096 argi-hodi kenduko dira Moyua eta San Mames geltokietan eta 120 luminaria –hodiak eta karkasak- Aretako geltokian. BGPk guztira 150.000 euroko inbertsioa egingo du; hasierako aurrekontua baino 35.000 euro gutxiagokoa. Partzuergoak lortu nahi du uda baino lehen jarrita egongo diren argi-iturri berriek oraingo luxen –neurtzeko parametroak- antzeko argi-ezaugarriak edo horiek baino hobeak izatea; hots, Norman Foster-ek diseinatutako haitzuloen beharrianetara egokitutako parametroak eskaini nahi ditu, lan arkitektonikoa handitzeko eta espazio itxia toki abegitsua, segurua eta erosoa egiteko.